

2/2018 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, uztailaren 17koa. Honen bidez, aldatu egiten da abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, loteria eta apustu batzuetako sariei doakienean.

DECRETO FORAL NORMATIVO 2/2018, de 17 de julio, por el que se modifica la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en relación con los premios de determinadas loterías y apuestas.

2013ko urtarrilaren 1az gero, Estatuko arautegiak lotu egin zituen Estatuko, autonomia erkidegoetako, Espainiako Itsuen Erakundearen, Espainiako Gurutze Gorriaren eta Europako antzeko erakundeek loterietako sariak, karga berezi baten bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergara eta Egoiliarren Errentaren gaineko Zergara.

A partir del 1 de enero de 2013 la normativa estatal sujetó, a través de un gravamen especial, los premios de las loterías del Estado, Comunidades Autónomas, Organización Nacional de Ciegos Españoles, Cruz Roja Española y entidades análogas de carácter europeo, al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y al Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

Karga berezi hori Bizkiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian sartu zen, jokoari lorturiko zenbait irabaziri aplika dakiekeen zerga-araubidea arautzen da abenduaren 18ko 10/2012 Foru Dekretu Arauemailearen bidez eta, hari dagokionez, egoiliarrek ez direnen gaietako arautegia Estatuko arautegia egokitu zuen

Dicho gravamen especial se introdujo en la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de Bizkaia mediante el Decreto Foral Normativo 10/2012, de 18 de diciembre, por el que se regula el régimen fiscal aplicable a determinadas ganancias derivadas del juego, y adaptó en relación con el mismo la normativa en materia de no residentes a la normativa estatal.

Karga berezia saria ordaintzen edo ematen den unean sortzen da, eta sariaren ordaintzaileak berak egin behar du, gehienetan Estatuko Loteria eta Apustuen Estatuko Erakundea izan ohi dena, 100ko 20ko atxikipen edo konturako sarrera bat,kitatzeko indarra izango duena eta, horrenbestez, zergadunak ez du autolikidaziorik aurkeztu beharko. Halaber, sari osoa 2.500 euro edo gutxiago bada, sari hori karga berezia ordaintzetik salbuetsita egongo da eta sari

El gravamen especial se devenga en el momento en el que se abona o satisface el premio, debiendo practicarse por el pagador del mismo, que habitualmente es la Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado, una retención o ingreso a cuenta del 20 por 100 que tiene carácter liberatorio y exime al contribuyente de la obligación de presentar autoliquidación. Asimismo están exentos del gravamen especial los premios cuyo importe íntegro



osoa 2.500 euro baino gehiago bada, berriz, zerga ordaindu beharko da, zenbateko hori gainditzen duen sariaren zatia dela eta.

Orain, uztailaren 4ko 6/2018 Legeak, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkok handitu egin du salbuespenaren zenbatekoa 40.000 eurora eta aldi baterako 2018ko zergaldian ospatutako jokoen ondoriozko sarietarako eta lege hori indarrean jartzen denez gero (2018ko uztailaren 5ean) 10.000 eurora, eta 2019an ospatutakoetarako 20.000 eurora..

Ekonomi Itunak eskumena ematen badigu ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko gaietako arautegian, foru dekretu honek aldatu egiten du zerga horri buruzko foru araua, aurreko legeroaldean aipatutako salbuespena premiaz ezartzeko, zenbait loteria eta aposturen sarien ondoriozko irabazien arloan gure inguruko zerga-administrazioek duten zerga-tratamendu berbera ezarri. Halaber, establezimendu iraunkorrik ez duten egoiliarrek ez direnen arautegia egokituta geratuko litzateke, hartan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru araua bidaltzen baita karga bereziarekiko salbuespenari doakionez.

Salbuespen hori berehalaxe sartu behar izateak eskatzen du, nahitaez, foru dekretu arauemailearen

sea igual o inferior a 2.500 euros y aquellos cuyo importe íntegro sea superior a 2.500 euros se someterán a tributación respecto de la parte de los mismos que exceda de dicho importe.

Ahora, la Ley 6/2018, de 3 de julio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2018 ha incrementado el importe de la exención a 40.000 euros y transitoriamente para los premios derivados de juegos celebrados en el periodo impositivo 2018 y desde la entrada en vigor de dicha Ley (5 de julio de 2018) a 10.000 euros y para los celebrados en 2019 a 20.000 euros.

A pesar de que el Concierto Económico nos confiere competencia normativa en materia de del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el presente Decreto Foral, modifica la Norma Foral de dicho impuesto, al objeto de establecer con carácter de urgencia la exención mencionada en el párrafo anterior estableciendo en el ámbito de las ganancias derivadas de los premios de determinadas lotería y apuestas el mismo tratamiento tributario que el regulado en las Administraciones tributarias de nuestro entorno. Asimismo quedaría adaptada la Normativa de No Residentes sin establecimiento permanente por la remisión que en la misma se realiza a la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en relación con la exención en el gravamen especial.

La necesidad de introducir de manera inmediata esta exención, exige la utilización del Decreto Foral



erabilera, premiazko arrazoiengatik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikulua 2. zenbakiko atalean ezarritakoa kontuan hartuta. Hori dela eta, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiak 2018ko uztailaren 17ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren.

Adierazi behar da foru dekretu arauemaile honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2017 Foru Dekretua, 2017ko urtarrilaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena.

Normativo por razones de urgencia, en virtud de la previsión contenida en el apartado 2 del artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación de la Diputación Foral en su reunión de 17 de julio de 2018

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral Normativo se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género, así como con lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra.- *Abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari*

Artículo único. *Modificación de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la*



buruzkoa, aldatzea.

Renta de las Personas Físicas.

Honako aldaketa hauek sartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauan:

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Bat. Berridatzi egiten da hamazortzigarren xedapen osagarria 2 zenbakiko atala, eta honela geratzen da:

Uno. Se da nueva redacción al apartado 2 de la Disposición adicional decimoctava, que queda redactado en los siguientes términos:

“2. Sari osoa 40.000 euro edo gutxiago bada, sari hori karga berezia ordaintzetik salbuetsita egongo da. Sari osoa 40.000 euro baino gehiago bada, berriz, karga berezia ordaindu beharko da, zenbateko hori gainditzen duen sariaren zatia dela eta.

“2. Estarán exentos del gravamen especial los premios cuyo importe íntegro sea igual o inferior a 40.000 euros. Los premios cuyo importe íntegro sea superior a 40.000 euros se someterán a tributación respecto de la parte de los mismos que exceda de dicho importe.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta loteriaren dezimo, zatiki edo kupoiaren edo apustuaren kostua gutxienez 0,50 euro bada. Kostua 0,50 euro baino gutxiago bada, aurreko lerroaldean adierazitako zenbateko salbuetsia modu proportzionalean murriztuko da.

Lo dispuesto en el párrafo anterior será de aplicación siempre que la cuantía del décimo, fracción o cupón de lotería, o de la apuesta efectuada, sea de al menos 0,50 euros. En caso de que fuera inferior a 0,50 euros, la cuantía máxima exenta señalada en el párrafo anterior se reducirá de forma proporcional.

Sariaren titulartasuna pertsona batek baino gehiagok badute, aurreko lerroaldeetan ezarritako zenbateko salbuetsia titular guztien artean hainbanatuko da, bakoitzari dagokion kuotaren arabera.”

En el supuesto de que el premio fuera de titularidad compartida, la cuantía exenta prevista en los párrafos anteriores se prorrateará entre los cotitulares en función de la cuota que les corresponda.”

Bi. Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, hogeita zortzigarrena; eduki hau izango du:

Dos. Se introduce una nueva disposición transitoria vigesimoctava, con el siguiente contenido:

“Hogeita zortzigarren xedapen iragankorra. 2018 eta

“Disposición transitoria vigesimoctava. Cuantía exenta



2019 ekitaldietako zenbait loteria eta aposturen sarien gaineko karga berezitik salbuetsitako zenbatekoa.

del gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas en los ejercicios 2018 y 2019.

2018ko uztailaren 5a baino lehen ospatutako jokoan ondoriozko sariak salbuetsita egingo dira karga berezitik foru arau honen hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian, 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketan, jasotako zenbatekoan.

Los premios derivados de juegos celebrados con anterioridad al 5 de julio de 2018, estarán exentos del gravamen especial en la cuantía prevista en el apartado 2 de la disposición adicional decimoctava de esta Norma Foral en su redacción vigente a 31 de diciembre de 2017.

Zenbateko hori 10.000 eurokoa izango da 2018ko zergaldian, 2018ko uztailaren 5az gero ospatutako jokoan ondoriozko sarietarako eta 20.000 eurokoa 2019ko zergaldian ospatutako jokoan ondoriozko sarietarako.”

Dicha cuantía será de 10.000 euros para los premios derivados de juegos celebrados en el período impositivo 2018 a partir del 5 de julio de 2018, y de 20.000 euros para los premios derivados de juegos celebrados en el período impositivo 2019.”

Azken xedapenetako lehena. *Indarrean jartzea.*

Disposición final primera. *Entrada en vigor.*

Foru dekretu arauemaile hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean eta 2018 uztailaren 5az geroko ondorioak izango ditu.

El presente Decreto Foral Normativo entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia con efectos desde el 5 de julio de 2018.

Azken xedapenetako bigarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Disposición final segunda. *Habilitación normativa.*

Baimena ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu arauemaile hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia y al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto Foral Normativo.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Batzar Nagusiei igortzea.*

Disposición final tercera. *Remisión a Juntas Generales.*



Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikulua 2. zenbakian jasotakoarekin bat, foru dekretu arauemaile honen onespeneren berri emango zaie Batzar Nagusiei, ondoren berrets dezaten.

Bilbon, 2018ko uztailaren 17an

De acuerdo con lo previsto en el apartado 2 del artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, de la aprobación del presente Decreto Foral Normativo se dará cuenta a las Juntas Generales para su posterior ratificación.

En Bilbao, a 17 de julio de 2017

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

UNAI REMENTERIA MAIZ